

ORIO / Maite Franco ipuin kontalaria haur guztiekin bilduko da gaur

DV. Gaur, osteguna, azaroak 13, Maite Franco ipuin kontalaria izango da gure artean, arratsaldeko seietan liburutegian.

Ipuin kontalaria Udal liburutegiak sustatu eta Jaurlaritzak diruz laguntzen duen ekimena da. Jarduera hau urriatik maiatzera luzatu ohi da, eta hauxe da bere xedea, hilean behin ipuin kontalari bat liburutegira etorri, eta umeei berak prestatu dituen ipuinak kontatzea, hain zuzen ere. Kontakizunetan erabiltzen den hizkuntza euskara da eta bost urtetik gorako haurrei zuzendua izaten da, gehien bat.

Joan den hilean Judith Huegun izan genuen, eta abenduan Pello Añorga izango da gure artean. Gaurkoan berriz Maite Francoren txanda. Maitek, hasteko, Grimm anaiek idatzitako Urrezko giltza ipuinean oinarritutako bertsio bat ekarriko digu, eta gero beste ipuin batzuk ere kontatuko ditu. Denak gonbidatuak zaudete.